

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2022/23

**Ikastegia**

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25773 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Irakaskuntza

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honek sei kreditu ditu, eta hirugarren mailako lehen lauhilabetean dago kokatua. Izen bereko moduluan txertatua dago, laugarren kurtsoko Jarduera Fisiko Inklusiboa irakasgaiarekin batera. Jarduera fisiko eta kirola irakasteko ikasleek dituzten trebetasunak eta konpetentziak garatu nahi dira. Testuinguru desberdinetarako prestatzeko oinarritzko formazioa ematea da asmoa, baina heziketa fisiko formalean zentratzen da. Lotura handia du honako irakasgai hauekin: Praxiologia Motorra, Oinarritzko Gorputz Hezkuntza, Adierazpena eta Dantza, Naturako Jarduerak, Kirol Jokoak, Kirolen Oinarriak eta Jarduera Fisiko inklusiboa, besteak beste.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**ZEHATZAK**

CE1. Zein egoera motorraren arabera gauzatzen diren kontutan izanik, portaera motorraren ikaskuntzako printzipioak eta eragileak ezagutu, jarduera fisikoen irakaskuntzara aplikatzeko.

CE2. Graduatuak bere lan arloan berezkoak dituen testu inguru desberdinetan jarduera fisiko eta kirolaren ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuak diseinatu eta planifikatu. .

CE3. Kirol prestakuntzarekin eta hezkuntza fisikoarekin zerikusia duten irakatsi eta ikasteko prozesuak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, pertsonen banakako ezaugarriari eta testuinguruaren ezaugarriari arreta eskainiz.

**ZEHARKAKO GAITASUNAK**

G020 Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea. (Landuko da).

G022 Lana behar bezala egiteko nahitaezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea, eta horien arabera jardutea. (Landa eta kalifikatuko da).

**Ikasketa emaitzak:**

&#8226; Ikaslea gai izango da, ahoz zein idatziz ondorengoak azaltzeko: ikaskuntza motorraren oinarriak; bai eta jarduera fisikoen ikasketa-irakaskuntza prozesuaren planifikazio, diseinu, garapen eta ebaluazio prozesuak.

&#8226; Jarduera fisiko eta kirolen ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuak diseinatu eta planifikatzeko gai izango da ikaslea, beti ere bakoitzaren testuinguruko eta ezaugarri pertsonalak aintzakotzat hartuz, bai eta jarduera profesionaleko helburu eta testuinguru desberdinak ere.

&#8226; Ikaslea gai izango da bere kabuz bibliografia, informazioa eta baliabideak bilatzeko, esku-hartzeak diseinatzeko gai izan dadin, testuinguru eta pertsona desberdinen ezaugarrietara egokitutako eskaintzen bidez erantzun ahal izateko.

Era honetan arloko berrikuntzen inguruan eguneratuta egonik, sortzen diren egoera berriei erantzuteko prestatuta egonik.

&#8226; Ikasleak bere diseinu, egitarau eta egokitzapenak egiterakoan aintzakotzat hartuko ditu irizpide etiko eta deontologikoak, baita lan kolaboratiboak eskatzen dituen beharrak, eta esku-hartze eremu bakoitzak eskatzen dituen kalitate ezaugarriek ere.

**CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**

**Jakintza teorikoen blokea:**

1. Jarduera fisikoen eta kirolen irakaskuntza. Oinarritzko kontzeptuak. Ikuspegi etikoa.
2. Paradigma aldaketa bat: Gaitasun, habilezia eta trebetasunetatik jokabidera.
3. Heziketa Fisikoa derrigorrezko bigarren hezkuntzan.
  - 3.1. Bigarren hezkuntzako etapa. Adoleszentzia eta heziketa fisikoa.
  - 3.2. Konpetentzietan oinarritutako heziketa fisikoa. Blitzarako heziketa fisikoa.
  - 3.3 Erreferentzia-osagaiak: Curriculum ofizialaren analisia.
    - 3.3.1. Funtsezko konpetentziak eta Konpetencia motorra
    - 3.3.2. Helburu orokorrak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza adierazleak.
4. Irakaskuntza metodología: Irakasteko estiloetatik heziketa fisikoko eredu pedagogikoetara.
5. Programazioa eta unitate edo hurrenkera didaktikoen elaborazioa
  - 5.1. Unitate didaktikoan inplikaturiko konpetentziak eta UDaren xedeak.
  - 5.2. Egoera-arazoak
  - 5.3. Unitate didaktikoaren egitura
  - 5.4. Unitate didaktikoaren helburu, ebaluazio irizpide eta edukien zehaztea.
  - 5.5. Hasierako, formakuntzako eta azken ebaluazioaren prozesuak. Ebaluazio tresnak.
  - 5.6. Ikasketarako jarduerak. Material didaktikoak.
6. Irakaskuntza lana.
7. Prozesuaren ebaluazioa eta post-programazioa.

Jakintza teoriko-praktiko blokea:

1. Ikaste-irakaste prozesuaren planifikazioa eskuhartze testuinguru ezberdinetan. Eragina duten aldagaiak.
2. Heziketa fisikoaren programazioa eta unitate didaktikoen elaborazioa hezkuntza sistema formalean (arautua).

## METODOLOGIA

Metodologiak bilatzen du ikasleek bere ikasketen ardura bere gain hartzea, horregatik: bibliografia bilatu beharko dute eta testu teoriko, metodologiko eta agiri ofizialak aztertu beharko ditu. Erabakiak hartu eta arrazoitu hartu beharko ditu unitate didaktikoak, bere saioak material eta tresnak diseinatu eta baloratzeko. Saioretan ematen diren azalpen teorikoak ikasleen autonomia bermatzeko baliagarriak dira.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	30	10	20						
<b>Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a</b>	45	23	22						

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 60

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleak a) ala b) ebaluazio mota hautatu behar du.

a) Ebaluazio jarraia

1. Unitate didaktikoa prestatzea eta entregatzea, bere saio, material didaktiko eta ebaluazio tresnekin. Atal guztiak ondo osatuak, koherentziaz, teorian ikusitakoaren aplikazio egokia, curriculum eta orientabide ofizialarekin bat egiten dutenak. 40 %.
2. Unitate didaktikoa prestatzeko eskatutako zereginak: 20%
3. Unitateen balorazioa eta hobekuntza proposamenak. 10%
4. Banakako proba idatzia: Teoria, metodologia eta curriculum eta orientabide ofizialen en ezagutza eta bere aplikazioa ekipoen eginiko lanean. 30%

Irakasgaia gaintzeko atal bakoitzean gutxienez 4ko nota lortu beharko da.

G022 zeharkako kompetentzia (Lana behar bezala egiteko nahitaezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea, eta horien arabera jardutea) ustezko kasuen bidezko praktikak baliatuz ebaluatuko da.

b) Ebaluazio ez-jarraia.

Proba idatzia, kalifikazioaren %100aren balioarekin. Barnehartzen du teoria eta metodologiaren kontzeptuen garapena, curriculum eta orientabide ofizialen ezagutza eta aplikazioa, unitate didaktikoen garapena eta bere justifikazioa.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

Deialdiari uko egitea.

1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
2. Irakasgai honetan azterketaren pisua irakasgaiaren kalifikazioaren %40 baino txikiagoa denez, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino hilabete bat lehenago gutxienez.
3. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du

automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ohiko deialdian ebaluazio jarraia egin duten ikasleek gaitututako zereginak, lana edo/eta azterketen notak mantendu ahal izango dituzte.

Ohiko deialdian ebaluazioa ez-jarraia egin duten ikasleek edo aurkeztu ez diren ikasleak ohiko deialdian ebaluazio ez-jarraitako deskribatzen den proba idatzia egin beharko dute.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZERO izango da (0,0 - SUSPENTSOA)

Ebaluazioa ez presentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Egela eskegitako artikulua erabili behar dira eta hauen lagungarri atxikitutako bibliografia dago.

### **BIBLIOGRAFÍA**

#### **Oinarrizko bibliografia**

Devís Devís, J. & Peiró Velert, C. (2021). Nuevas perspectivas curriculares en educación física: la salud y los juegos modificados.. Editorial INDE. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/lc/ehu/titulos/174774>

Etxebeste, J.(2004). "Educación Física". In: Currículo Vasco. Itinerario Cultural. (2004). Ikastolen Elkartea. Gobierno Vasco. p. 63-74

García López, L. M. & Gutiérrez Díaz del Campo, D. (2021). Aprendiendo a enseñar Deporte: Modelos de enseñanza comprensiva y educación deportiva. Editorial INDE. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/lc/ehu/titulos/174795>

Larraz Urgelés, A. (2002). Diseños curriculares de la comunidad autónoma de Aragón. Educación Primaria: Educación Física. (consultado 3-9-2021) ([http://www.praxiologiamotriz.inefc.es/PDF/Praxio\\_Lleida\\_curri\\_011.pdf](http://www.praxiologiamotriz.inefc.es/PDF/Praxio_Lleida_curri_011.pdf)).

Lopez Pastor V. M., Pedraza González M. A., & Ruano Herranz, C. (2017). Educación física y dominios de acción motriz. Ministerio y Dirección. Retrieved 2022, from <https://public.ebookcentral.proquest.com/choice/publicfullrecord.aspx?p=5308889> ..

Lopez Pastor V. M (Ed.). (2017). Educación física y dominios de acción motriz : unidades didácticas (1487), Ser. Educación física y deporte en la escuela). Ministerio y Dirección.

Lopez Pastor V. M., & Barrios Martín J. (2016). Programar por dominios de acción motriz en educación física (Ser. Educación física y deporte en la escuela). Ministerio y Dirección.

Lorente-Catalán, E. (II.) & Martos-García, D. (II.). (2018). Educación física y pedagogía crítica: propuestas para la transformación personal y social.. Edicions de la Universitat de Lleida. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/lc/ehu/titulos/122410>

Martínez Álvarez, L. (2009). La educación física y el deporte en la edad escolar: el giro reflexivo en la enseñanza.. Miño y Dávila. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/lc/ehu/titulos/59433>

Parlebas, P. (1989). Perspectivas para una educación física moderna. Junta de Andalucía

Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad.. Léxico de praxiología motriz Paidotribo

Parlebas, P (2016). Heziketa fisiko moderno baterako ikuspuntuak (R. Martínez de Santos eta A. Oiarbide, Itzultz.). EHU / UPV. (Obra originala 1996an publikatua).

- Parlebas, P. (2017). La aventura praxiológica. Ciencia, acción y educación. Junta de Andalucía (Consejería de turismo y deporte).

Ruano Herranz, C. López Pastor, V. M. & Pedraza González, M. Á. (2017). Educación física y dominios de acción motriz: unidades didácticas.. Miño y Dávila. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/lc/ehu/titulos/45060>

Target, Ch. y Cathlineau, J. (2002). Cómo se enseñan los deportes. Inde.

Uren&#771;a Villanueva F. (Ed). . (2010). La educacio&#769;n fi&#769;sica en secundaria basada en competencias (Vol. V. 0, proyecto curricular y programacio&#769;n /). INDE. (ik. ere CD-a eta gainerako bolumenak, DBHko ikasmaila bakoitzeko UDak kontsultatzeko &#8211; ver tb. el CD y el resto de los volúmenes para consultar las UD de cada curso de ESO)

Zulaika, LM. (2012). Remo de banco fijo: Manual didáctico para la iniciación. Diputación Foral de Gipuzkoa

## **Gehiago sakontzeko bibliografia**

### **Aldizkariak**

Apunts : educación física y deportes. INEFC. Barcelona.

Tandem. Didáctica de la ed fís. Graò. Barcelona.

E + F : educación física y deporte. Madrid.

Retos : nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación.

Espiral. Cuadernos del profesorado.

RICYDE Revista Internacional de Ciencias del Deporte

CCD. Revista Cultura, Ciencia y Deporte

Ágora para la educación física y el deporte

### **Interneteko helbide interesgarriak**

<https://gorputzheziketa.hezkuntza.net/es/prinzipala>

<https://gorputzheziketa.hezkuntza.net/eu/prinzipala>

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/es\\_5495/f10\\_c.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/f10_c.html)

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/es\\_5495/f10\\_c.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/f10_c.html)

<http://www.unizar.es/praxiologiamotriz/index-XI-seminario.html>

<http://www.accionmotriz.com/>

<http://aintzinakojolasak.blogspot.com/>

**OHARRAK**